

Valeriano Mokoroa
Tolosa, Gipuzkoa (1871)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Idazlea zen eta 42 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: gipuzkera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.232 eta 2.233

Zintak

TOL-071

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-08-28
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. San Anton jaiak

- **Erref:** TOL-071/001
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:59

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>"Euskalzale Aldizkaria" izenekotik hartutakoa da pasarte hau. Bilbon sortutako aldizkari honen zuzendaria Resurreccion Maria de Azkue zen. San Anton jaiaren berri ematen du, lehenagokoak eta grabazioko garaikoak alderatuz.</p>

Transkripzioa

San Anton antziñian ... eta San Anton gaur. Nola ezagun dan egunetik egunera ari gerala aurreratzen... atzera!

Oroitzen naiz gaztetxo nintzala nere jaiet-erritxoan zenbateraiño larría edo naia edukitzen genduan egun zoragarri au ospatzeko; bada urteoro egun orretan izan oi zan zerri aundi baten errifa edo norentzat izana, aitorturik San Anton deritzan anai kidearen onerako zala orretan irabazten zan dirua. Goiz goizetik asiko ziran anaikide orretako buruzari edo kargudun jaunak etxerik etxe papertxo batzuetan izkribatuaz izen ta izen-gañak bakoitzeko errealtxo banan, eta berealaxen osatzen zan zerriak balio zuben ainbeste, kontuan idukirik anaikidetarrak bakarrik izaten zutela sarbidea jokura.

Eta gaur? Gaur ere bada, bai, zerriaren errifa, bañan... lengo moduban! Ezta aldeko ere.

Bi edo iru illabetez lendik asten da, beste eginkizunik gabe, kalerik kale, jai eta lan-egun, gizon bat eztarria urratu-bearrean irrintzika: Rifa; tira errialian billetia; quien me compra? akabatzerá dijoaz... Eta doi-doi saltzen ditu egun orretarako; orrenbestexe denboran buruan!

Eta nola ez, baldin lautatik bat petxetarako bear bada; irutatik bi, onelakontzat; erdia, alakontzat; egunetatik onenbeste... besteren batentzat!

Nork eta errazoiarekin galdetuko ez du: Zenbat balio du zerriak, eta norentzat dira irabaziak?

Atzera gaitean, atzera gaitean... aurrera!

2. "Ihauteriak" izeneko olerkia

- **Erref:** TOL-071/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:04:07

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>"Ihauteriak" izeneko olerkia. Euskal ihauterien euskal izaera galbidean doala dio, moraltasun galera tarteko. "Euskalzale Aldizkaria" izenekotik hartutakoa da pasarte hau. Bilbon sortutako aldizkari honen zuzendaria Resurreccion Maria de Azkue zen.</p>

Transkripzioa

Iñauteria

Autza dan gorputz argaltzuari
gozagiroak emanaz
igaro dira Iñauteriak
"Urrengo arte" esanaz.
Jesus maileak, zeinbat naigabe
arratzalde eta gabaz,
egun oietan eraman ditu
loikeriaz ta birauaz.

Mozorroturik beren buruak
Jantzirik soiñ txit nabarrak
jira ta bira neska-mutillak
emen oju, an algarak,
ibiltzen dira lotza galdurik
emanik laztan zatarrak
apaindurikan beren laguntzaz
nazkagarritzko baztarrak.
Euskal izkuntza, soñu ederrak,
mutu gelditu zerate?
Errugabeko dantza garbiak,
noiztandik erren zaudete?
Artzal-jaitako billera onak,
nork gaueratu zaituzte?
Itz batean, nork azpikoz gora
euskera bana digute?

Erdal etzaiak landatutako
Sasi-arrotz puzoidunak,
zain mingarriak zabaldu ditu
esnatzeko lo daudenak;
aiñ eraskorrek dirade berriz
mentu txar oien aztarnak,
non itzatzirik arkitzen geran
zorigaitzez euskaldu[nak.]

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com